



ERMUAKO EMAKUMEEN ASANBLADA BERDINTASUNAREKIN KONPROMISOA

Ale honetan ere...

- ① **IRITZIA:** Erantzunkidetasuna, estrategia errentagarria
- ① Raquel Royo soziologoari elkarrizketa: «Familiek desberdintasun-eskolak bailiran jokatzen jarraitzen dute»
- ① Emakundek 65 urtetik gorako euskal emakumeen autonomia indibidualaren graduari buruzko ikerketa argitaratu du



BEGOÑA MURGUIALDAY MARTÍNEZ
PSIKOLOGOA. BERDINTASUN-TEKNIKOA. MURGIBEKO ZUZENDARI GERENTEA

Erantzunkidetasuna, estrategia errentagarria

Modernitateak gizonentzako gordetako herritarren antolaketa eta sinbologia bat sortu du eta emakumeei esleitutako etxeko espazio bat. Horrela, lehenengo jarduera politiko eta laborala bigarrenen doako ugaltze-lanaren gainean finkatzen da.

Ikuspuntu horretatik emakumeek lan-merkatuan eta enpresetan duten posizioa desabantailan dago beti, eta horren azalpena beren familia-erolek ezartzen dituzten baldintzatzaileetatik abiatuta eman behar da. Gizonezkoen posizioa, aldiz, azaldu behar da lan-arloan, politikan eta arlo sozialean duten erabilgarritasunetik abiatuta. Posizio horrek ahalbidetzen du etxean gizonaren parte hartzea urria izatea. Hortaz, ugaltze-lana, bizitzarako ezinbestekoa dena, lan bezala ez identifikatzea ez da ustekabean gertatzen den zerbait.

Berdintasun-gaietan aurrerapen handiak eman badira ere, adierazle estatistikoek eutsi egiten diote gizonen familiaren erantzukizunetan eta zaintzan duten parte-hartze hutsaren aurrean.

Azken urteetan, familia eta lana bateratzeari buruzko kezka gogoeta akademikoaren, eztabaidaren eta elkarrizketa sozialaren, agenda politikoaren eta enpresa-kudeaketaren parte izatera iritsi da. Hala ere, esan daiteke izen berriaren azpian gai zaharra dagoela “emakumeek bizitza osoan zehar kontziliatu baitute”.

Gaur egun, eztabaida sortzen da enplegu eta aukera-berdintasuneko politika europarren esparruan. Politika horiek aurre egiten saiatzen dira populazioaren zahartzeari, jaiotza-tasaren jaitsierari, langabeziari eta jarduera ezari, erronka bat direlako pentsio-sistema eta Europako eredu sozialaren zaintzako beharren estaldura mantentzeko.

Teresa Torns-ek azpimarratzen du kontziliazioak bitarteko izan nahi duela “zuzenak eta demokratikoak ez diren bi eremutan”, horrela lanaren zatiketa sexualetik ondorioztatutako gatazka ezkutatzuz edo ukatuz. Gatazka hori azaleratzen denean “arazo pribatu” bat balitz bezala ikusten da. Hortik, kontziliazioa arazo femininotzat hartzeko arriskua eta politika horiek “emakumeek bizkar gainean daramaten presentzia



bikoitza eramangarriago” egiteko arriskua. Gainera, politika horien gaurko garapenak ez du zerikusirik hasierako helburuarekin. Hasierako helburua gizonen eta emakumeen arteko erantzukizuna partekatzea baitzen, hots, erantzunkidetasuna sustatzea.

GEHIAGO PARTEKATUTAKO ERANTZUNKIDETASUNERANTZ

Ongizate-maila inbidagarriak dituzten herri aberatsetan (ekonomikoki eta sozialki hitz eginez), zalantzarik gabe inbertitzen dute genero-politikan eta erkidegoko gizarte zerbitzuak bultzatzen. Botere-eremuetan emakumeen presentzia areagotzeko berdintasun-le-

Erantzunkidetasunaz hitz egiteak amatasunaren eta aitatasunaren esanahi kulturaletan aldaketak sortzea dakar, eta berezko denboraren pertzepzio ezberdinaren hausnarketa.



geak, ekintza positiboak eta kuotak dituzten herriak dira, beste jarduera batzuen artean.

Hortaz, beharrezkoa da estrategiak zabaltzea, eta konbinatzea populazioaren hazkundera enplegu femeninoaren tasa altuekin, enpleguko segurtasunarekin eta gizonentzat eta emakumeentzat berdintasuneko gizarte estaldurarekin, lana utzi eta zaintzara dedikatzeke, eta hori guztia, pertsonen ongizatera bideratutako giza baliabideen sare indartsu eta sendoarekin.

2000tik 2050era Estatu Espainiarraren mendekotasun tasaren %27atik %73ra pasatuko da. Suedian, aldiz, tarte berean, %30etik %43ra pasatuko da. Egunerokotasuna eta pertsonen bizitza bermatzen duten estrategiekin kudeatu behar dugu eguneroko bizitza, eta horretan ezin dute huts egin ez enpresek, ezta gobernuek ere.

Horretarako, eginkizun banaketa desberdinean dagoen genero estereotipoak deuseztatzea beharrezkoa da, hala nola etxeko lanaren balio ekonomikoa kontabilizatu eta zabaldu, gizonen erantzunkidetasuna sustatu, lan-egiturak egokitu eta haurrentzako eta mendekoentzako gizarte komunitate zerbitzuak sortu, laguntza ekonomikoak sustatu, eskola jangelak, eszedentzia eskatzen dutenentzako laguntzak, pertsonen ardurarako baimenak eta lan-ordu murrizketak, eskola ordutegi egokipena eta abar...

Erantzunkidetasunaz hitz egiteak amatasunaren eta aitatasunaren esanahi

kulturaletan aldaketak sortzea dakar, eta berezko denboraren pertzepzio ezberdinaren hausnarketa. Cristina Carrasco bezalako egileek “bizitzaren iraunkortasunaren ikuspegitik abiatuz –eta ez kapitalaren iraunkortasunaren ikuspegitik– begiratzea, ulertzea eta mundua interpretatzea suposatzen duen paradigma aldaketa” proposatzen dute.

Herritartasun eta giza eskubideen kontzeptua zehaztu behar da berriro ere eztabaida honetatik abiatuz, eguneroko bizitzaren eskubideak barne hartu dituzan. Honek, zerbitzu publikoak hiritarrei hurbiltzen saiatzen den denboraren banaketari buruzko politika bat sortzea suposatzen du, gizon eta emakumeei argibide egokienak eskaintzen dizkien tokietan bizitzeko behar dituzten lanak eta denborak kontutan hartuz.

ERRENTAGARRITASUN EKONOMIKOA SOZIALA GABE?

Ezinezkoa. Ezin dugu hainbesteko inbertsioa eta talentua zarrasteldu. Enpresa-erakundeek, erantzukizun sozialaren, pertsonen bizitzaren eta ingurunearen iraunkortasunaren konpromiso eta hausnarketa honen barne, ezin dira genero ikuspegiak eta berdintasun politikak dakartzaten paradigma aldaketa honetatik at egon.

Eredu tradizionalak, ezberdintasuna eta diskriminazioak, zarrastelkeria eta ingurumenarekiko itsukeria, gure gizartearen garapenerako desabantaila garrantzitsuak dakartzatela adieraz-

ten duten ikerketak daude. Baliabide guztiak agortu egiten dira, horregatik, haiek zaintzea, mantentzea eta haztera laguntzea komeni da.

Enpresek, bere langileak lehenetsuna izan dezaten saiatu behar dira; bere gaur egungo eta etorkizuneko beharrak eta interesak, bere garapen intelektuala eta pertsonala, bere egonkortasuna, umorea eta nahiak. Erakundeetan denboren, dinamiken eta prozesuen arrazionalizazioa beharrezkoa da eta horrek, ordutegi eta lanaldien zorroztasuna, “presentzialismoari” ematen zaion gehiegizko balioa, aparteko orduak, adiskidekeriak, gardentasunarekiko beldurrak, informazio gabezia, sekretismoak eta abar bezalako balio zaharkituak zalantzan jartzea suposatzen du.

Dibertsitatea, gardentasuna, parte hartzea, ordutegi, lanaldi eta guneen malgutasuna, eta lana eta bizitza pertsonalaren arteko muga eza bezalako balioekin kudeatzen diren enpresak, bere emaitzak emakume, gizon eta gizartearen ingurunearekiko ardura bezalako balioekin neurtzen dituztenak dira, gaur egun, iraunkortasun gehien adierazten dutenak.

Guzti honetarako, erakundeen buruzagien aldetik kultura eta jarrera hartze aldaketa bat egon behar du, baina baita erakunde hauek osatzen dituzten langileen aldetik ere, toki guztietan eta zentzu guztietan “irabazi-irabazi” bezalako apustu baterantz bideratutako aldaketa.



Bere libururako 26 bikote gazterekin norberaren, familiaren eta laneko bitzta uztartzeari buruzko landa-lana egin ondoren, soziologo euskaldunak, Deusto-ko Unibertsitateko emakumeen kontrako bortizkerian esku hartzeko Masterreko zuzendaria denak, egiaztatu du desberdintasuna bultzatzen duten eta oso barneratuta dauden genero-inertziak egoten jarraitzen dutela, baina aldaketa txikiak ere badaudela, baita aitatasun eta amatasun-eredu berriak eta berdintasunezkoagoak ere, eta azken horiek ikusgai bihurtzea garrantzitsua dela, berdintasuna hemen eta orain posible dela adierazten baitute.

TESTUA: C. RUIZ DE GARIBAY - ARGAZKIAK: K. CORBELLA

«Familiek desberdintasun-eskolak bailiran jokatzaren jarraitzen dute»

Maternidad, paternidad y conciliación en la CAE. ¿Es el trabajo familiar un trabajo de mujeres?» zure liburuak azpigituluan galdera erretorikoa dauka, eta pertsona gutxi ausartuko lirarteke galdera horri baiezkoa ematera. Hala ere, portaera pribatuak ez dira berdintasunezkoak, gutxienez hori ondorioztatzen da 52 pertsonekin egindako landa-lan horretan. Pertsona horiek 30 eta 44 urte bitartekoak dira, beren bikote heterosexualekin eta beren seme-alabekin bizi dira EAE-ko hiri-eremuko herriren batean, erdi mailako ikasketak edo unibertsitate-mailakoak egin dituzte eta ordaindutako lana egiten dute.

Gizonezkoek ordezkoak edo laguntzaileak bezala jokatzaren jarraitzen al dute eta emakumezkoek, aldiz, familiako lanen aginpidea hartuz jarraitzen al dute?

Bai, genero inertziak mantendu egiten dira. Desberdintasunak badirau,

nahiz eta aldaketa sozialetik ateratako patroiak ere ematen diren. Badirauten inertziez eta desberdintasunez dihardudanean, maskulinizatuta eta feminizatuta jarraitzen duten emakumeen lanaldi bikoitz horietaz edo etxeko zereginetaz hitz egiten ari naiz. Hori sarri gertatu ohi da berdintasunaren aldeko bikoteetan ere: gizonezkoentzako, etxeko konponketak; emakumezkoentzako, etxearen erantzukizuna, garbitasuneko zereginik errutinazkoenak, plantxa, seme-alaben ardura, eta abar. Modu berean, eta salbuespenik ezean, gizonezkoek beren seme-alabak mediku-kontsultara kasurik larriretan bakarrik daramatzaten bitartean, emakumezkoak kasu usuenez eta ohi-koenez ere arduratzen dira: txertoak, dentistak, mediku-azterketak...

Inertzia hauetan bikotekide bakoitzak duen denbora propioa ere sartzen da. Gizonezkoek oso argi dute denbora propiorako eskubidea dutela. Aita ona izatea definitzen

dutenean ere denbora propioa aurreikusten dute, emakumeek aldiz ez dute hori egiten eta gainera gizonezkoek espontaneoki behintzat aipatu ere egiten ez duten zerbait da, ama onaren ezaugarriez ari direnean. Hori bat dator barneratutako amatasun intentsiboaren ideologiarekin, sakonki alienagarria dena emakumeentzat eta beren errealizazio pertsonalarentzat. Eta txarra da ere gizonentzat, hein batean ukatzen ari zaielako femininoa bezala definitua izan den baina guztiz gizatiarra den horretan parte hartzea, alegia, seme-alaben zaintzan.

Hala ere, zerbait aldatzen ari da, behintzat jende gazteenaren artean, ezta?

Zorionez berdintasunezko amatasun- eta aitatasun-eredu berriak agertu dira eta horrek gizonei ahalbidetzen die patriarkatuak ukatutako eremuak berreskuratzea, hala nola, sentikortasuna eta emozioak. Askok ez dira kontziente aitatasuna ukatzen

zaienik ere, eta “erreskate” horrek amatasun ez hain intentsiboak ahalbidetzen ditu emakumeengan, nolabait denbora propioa izan dezakete eta ondorioz amatasuna eta bizitza laborala kulparik gabe bizi dezakete.

Kulpa, frustrazioa eta niaren disoluzioa dira zuk elkarrizketatutako amek gehien errepikatzen dituzten sententzioak, aldiz inkestatutako aitek ez dituzte aipatu ere egiten.

Kulpa sentimendu ikaragarria da, emakumeen kontrol-mekanismo bat da. Sentitzen duten kulpa hori ematen da ordaindutako lana egiteagatik eta sozialki eraikitako itxaropenei ez erantzuteagatik. Sozialki eraikitako itxaropen horiek zorrotzak eta bidegabeak dira ama on batek zer izan behar duen finkatzerako orduan, aitei aldiz ez zaie eskatzen itxaropen horiei erantzuteko. Gainera, bitxia bada ere, gizonezkoek ez dute izaten kulpa sentimendurik, nahiz eta emakumezkoek baino denbora gutxiago eskaini zaintzari.

Nik elkarrizketatu nituen amek beren buruak izaki erlatibo gisa ikusten zituzten, Simone de Beauvoirrek zioen bezala, izaki osatugabeak bezala, beren burua definitzerakoan gizonarekin edo beste izaki batzuekin duten erlazioa kontutan hartzen dutenak: norbaiten ama izatea... Nolabait, rol batean bihurtzeko beraiek izateari uzten zioten, eta horretatik ere askatu beharra dago. Azkenean, hau guztia dator generoagatik zatitutako sozializazioetan sozialki eraikitako alderdietatik.

Gainera, gaur egun etxeak desberdintasun-eskolak bailiran jokatzen ari dira. Seme-alabek beren aitek eta amek dituzten rola ikusten dituzte eta barneratu egiten dituzte. Gizonek emakumeek eskatutako zereginak bufaka egiten dituztenean, horrekin ere erantzukizuna emakumeena dela eta ez gizonena ikasten da. Emakumeek ondokoa diogunean: ken zaitez, ken zaitez, nik eginen dut, desberdintasuna erreproduzitzen ari gara eta sozializazioari erantzuten. Egitura aldetik eta kulturalki ezarrita dagoen zerbaiti erantzuten dio eta gainera sistemari ongi dator kio emakumeek etxeko lanak dohainik egiten jarraitzeko. Horregatik, kate hori apurtzea oso garrantzitsua da.



Barneratze hori al da berdintasuneranzko aurrerapen motelaren arduradun nagusia ?

Benetan izugarria dena da desberdintasunak ez duela existitzen gizonengandik eta emakumeengandik at bakarrik, barneratu egiten dugu eta berdintasunerako oztopo ikusezin bezala jokatzen duten hautemateko modu, gustu eta sentimenduak sortzen ditu. Jada Marx-ek bazioen “menderatzailearen ideologia menderatutako klaseak xurgatzen duela”. Baina hori sozialki eraiki bada, modu berean bertan behera gera daiteke. Ez da naturala, artifizialki sortutako zerbait da, boterearen produktu bat da. Beraz, alda daiteke eta aldatu beharra dago gizarte bidezkoago bat eraikitzeko.

Gizarteak kontziliazioa emakumezkoen gauza balitz bezala ulertzen du. Erantzunkidetasunari buruz hitz egiteko unea iritsi al da?

Aipatu beharra dago bateratze-neurriak sendoki feminizatuta daudela eta horretan bai aldaketa pertsonalak eman daitezkeela, baina egia da ere aldaketa horiek orokortzeko ekoizpenaz hain arduratua dagoen sistema sozioekonomikoaren erdian zaintza jarriko duen transformazio soziala ezinbestekoa dela. Nolabait, ugalketa-lana ikusezina da eta azken finean horixe da ekoizpen-lana sostengatzen duena. Gizartea bestela antolatuta behar da. Kontziliazioak emakumeen ondare eskusiboa izaten bukatzen du eta, horregatik, erantzunkidetasun familiar eta sozialaren

idea azpimarratu behar da. Gizarte-eragile guztiek dute erantzukizuna, eta politika publikoek erantzunkidetasun hori bultzatu behar dute.

Krisi ekonomikoa arlo honetan aurrera ez egiteko aitzakia izango al da?

Soilik epe laburreko eta inteligentzia gutxiko ikuspegi batek pentsa dezake berdintasuna ez dela beharrezkoa krisi garaietan. Orain, inoiz baino gehiago berdintasuna beharrezkoa da. Pentsamolde hori aldatu beharra dago, alegia, emakumeen eskubideak eta berdintasuna loraldi ekonomikoetarako bakarrik gorde behar den luxua dela pentsatzen duena.

Berdintasuna oso inbertsio ona da. Bestela, alferrik galtzen ari gara gizarteak albo batera utzi ezin dezakeen giza kapital bat. Premiazkoa da ordaindutako ekoizpena eta ugalketa lantzeko modu gizatiarragoak aurkitzea. Horrela gertatzen ez den bitartean, emakume askok ordaintzen jarraituko dute ugalketa sozialaren kostua beren uko egite unilateralekin, beren kulpa sentimenduekin edo beren gaitzondoarekin; gizon askok beren aitatasunean parte hartu gabe jarraituko dute –horretaz kontzienteak izan gabe ere–; eta familia askok desberdintasun-eskola bat izaten jarraituko dute hurrengo belaunaldietarako. Azken finean, gizarte bezala onartzen jarraitu behar ez dugun gizakiaren potentzialtasunen murrizketak gertatuko dira.

Liburu osoa: http://www.emakunde.euskadi.net/u72-20010/es/contenidos/informacion/pub_publicaciones/es_def/adjuntos/6904-maternidad.pdf



◀ Ermuako Emakumeen Asanbladak utzitako argazkia, 2011ko azaroaren 11n Ermuako Feministen Aztarnen Maparen Proiektuaren barruan egina.

ERMUA-KO EMAKUMEEN ASANBLADA Berdintasunarekin konpromisoa

Kontzientzia sozialei eragin diete eta bere aldarrikapenek politika lokaleko aplikazioan eragiten dute. Estatuko emakumeen lehen kandidatura osatu zuten 1987ko udal hauteskundeetan eta zinegotzi bat ateratzeko zorian egon ziren. Emakumearen Etxean dute bere txokoa eta bertatik, mendekotasun arretako zerbitzu publikoen hobekuntzaren alde lan egiten jarraitzen dute, gizon eta emakumeen arteko zainketa lanen bidezko banaketa baten alde eta berdintasunarekin zerikusia duten beste gaien alde.

TESTUA: C. RUIZ DE GARIBAY

Ezkerreko alderdietatik gentorren; ohituta geunden frankismoaren aurka borrokatzera; “El segundo sexo” irakurria genuen; teoria feministan heziak izateko gose ginen, baita gure eskubideei buruzko gaiak aldarrikatzeko beharra, hala nola, gure gorputzaren gozamina, antisorgailuak, aborturako dibortziorako eskubidea, amatasuna eta sexualitatea ez parekatzera eta ezeztatu zitzaizkigun hainbat gauzetara”. Hauek, María Rosario Arrizabalagaren hitzak dira, Ermua-ko Emakumeen Asanbladako sustatzaileetako bat, gaur egun ere, borrokan jarraitzen duena.

Legalizatu zituzten data zehatza ez du gogoratzen baina bai 1977. urteko abenduan Leioan ospatu ziren Euskadiko lehenengo jardunaldi feministak antolatutako zirela jada. “Abortatu zuten Basauriko 11 emakumeen epaiketan zaildu ginen eta mugimendu feministako borroka guztietan parte hartu

dugu”. Sexu-informazio zerbitzuak lortzea izan zen beste emakume taldeekin batera, lortutako aldarrikapen garrantzitsu bat. “Obskurantismoaren, beldurraren eta bekatuaren garaia-aren ondoren, gune hauek, ezer baino lehenago, emakumeei informatzeko balio behar zutela konturatzen ginen, eta ondoren, familia plangintza bat eskaintzeko, sexualitatearen eskubidea eta plazerra, batez ere, ezagueratik zetorrelako uste genuelako”.

Ondoren, beste planteamendu politiko sortu ziren udalerrian, arrakastarekin aurrera eraman direnak. “Ardura arloan beharrezkoak diren zenbait udal zerbitzu abian jartzea lortu dugu, hala nola, zahar-etxea, toki kopuruaren handiagotzea eguneko zentroetan, pertsona zaharrei prestatuko janaria etxez etxe banatzearen sustapena, baina oraindik konpondu gabe dago etxez etxeko laguntza. Zerbitzu publikoak onak, eraginkorrak eta eskuragarriak izatea

nahi dugu, lau txanponengatik etxetan lan egin behar duten emakumeen kasuak eman ez daitezten”.

FAMILIAREN NAHITAEZKO ZERBITZURAKO INTSUMISIOA

Begoña Fernández, Asanbladara 1984an gehitu zena, mendekotasunaren harretarako gaiak mahai gainean jartzearen prozesua nolakoa izan den azaltzen du, hala nola zainketa lanen banaketarena eta koerantzukizunarena.

«Hainbat kanpaina antolatu genituen, lehenengo, tokiko bost kirolarirekin, gazteriarren arreta erakarriko zutelakoan, eta oihartzun handia izan zuen. Zaintzaile jarreran azaltzen ziren bost txapeldun ziren, kirolezko lelopean. Honen ondoren, mendekotasunari buruzko eztabaida bat antolatu genuen beste emakume talde batzuekin, zaintzera behartuak sentitzeak suposatzen duena, galtzen ditugun autonomia, lan eta bizitza aukerak,



▲ Asanbladak editatutako gida, eta Ermuako bost kirolariek protagonizatutako mendekotasunaren arretarako kanpaina.

eta jasaten dugun presioari buruzkoa. Familiaren nahitaezko zerbitzurako intsumisia aldarrikatzen hasi ginen, hala nola pertsona guztientzako ardurak lortzeko erakundeen erantzukizuna

Zaintzaileentzako babes psikosozialeko tailerrak antolatzeko beharra ikusi genuen haietako askok, emozionalki zainduak izan behar zirela ikusten genuelako, bere inguruneko pertsonak zaintzeagatik bere bizitzak alde batera uzten zituztelako. Aitagarreba, amagarreba, aita edota ama zaintzen 15 bat urte edo gehiago ematen zituzten emakumeak ezagutzen genituen, 50 urteetatik 65 urteetaraino, edo gehiago.

“Sei urtetan zehar autolaguntza lan-tegi hauetara joan ziren emakume askok eta gizon batzuk, arduraren etikari buruz eraiki den emakumezkoen identitate hori zalantzan jartzen saiatzen ginen. Zaintzen badugu solidarioak garelako da eta zaintzeari uko egitera beldurrik ez izatearen normalizazioa genuen helburu”, María Rosarioren hitzetan.

Begoñak aurrekoa berresten du eta gehitzen du: “Ezinbestekoa iruditzen zitzaigun emakumeek zainketa lanak beste batzuen esku uztea ikastea, horretarako zeuden zerbitzu publikoak erabiliz edota eskatuz, ez zeudenean. Emakumeentzako ardura lanen kostua zein zen azaltzea izan zen gure lana, kontziliazio gaietan erakundeek bere ardura onartu zezaten. Ermua-ko Udalak beharra ikusi eta gaur egun lantegi praktikoak antolatzen ditu ikuspegi honekin».

2006ean “Ermua-ko Udaleko mendeko pertsonentzako ardurari buruzko

diagnostikoa” egin zuten eta ondoren, herri plataforma bat sortu zuten “Ermua-ko Udaleko Ardurarako Eragin Plana”-rekin batera.

Plan honen helburu nagusia hurrengo da: “mendekotasunerako arretako zerbitzu publikoen funtsezko hobekuntza eta gizonen eta emakumeen arteko ardura zereginen banaketa hobetuz, azken hauek famili esparruan duten laneko gaitzakeria gutxitzeko, gizartearen jasaten duten diskriminazioaren arrazoi nagusia deuseztatuz”. Ere mu publikoan, zerbitzu eta lekuen handi-gotzea, informazioaren eta langileen baldintza laboralen hobekuntza, eta mendeko pertsonentzako hirisgarritasuna eta higikortasunaren hobekuntza ere begiesten du planak, elkartzelaren sustapenarekin batera... Famili eremuan, emakume eta gizonen arteko erantzunkidetasunean jartzen du arreta eta zaintzaileek gizartearen parte-hartzean... Planteamendu guzti hauek, beste emakume taldeetatik sortu zirenekin batera, 2008an Portugaleten ospatu ziren IV. Jarduera Feministetan aurkeztu ziren.

BERDINTASUN PLANAK LANTZEKO PARTE-HARTZEA

Asanblada osatzen duten 50 emakumeen adinaren batz bestekoa berrogei urtekoa da, gutxi gora behera, eta ia guztiak etxetik kanpo egiten dute lan. Honi esker, enpresa batzuen berdintasun planetan parte-hartzeak aukera izan dute, hala nola hauen jarraipena egiteko. Horieta bat, Tenneco, –udalerriko ga-

rantzitsuena– 600 langiletik gora ditu. “Plan honetan, koerantzukizunak bere garrantzia du. Ardura eta ugaltze lanen banaketaren borrokan, gizonen aitatasun-baimenetan parte hartzea eskatzen dugu, gehienetan emakumeak direlako baimen hauek hartzen dituztenak bere lan ibilbideetan duen ondorioekin, bai soldaten eta bai erretiro pentsioen esparruan. Asanbladako lehen garaiko feministak diren enpresako emakume langileek sustatu dute plana”.

Bai María Rosario bai Begoña oso harro daude topaketa-leku bat izan delako Asanblada, azterketa feministarako gunea eta ingurunean eragiteko gai den antolakuntza. “Hiritarren pentsamendaren aldaketan politikoki eragin dugu berdintasun handiago batetarantz, eta hemendik irten dira gaur egun Ondarroan, Basaurin, Emakunden, Arabako Aldundian, Ermuan eta Madrilan lanean ari diren Berdintasun Teknikari lanetan ari diren hainbat emakume.

Hemezortzi eta hogeit urte bitarteko gazteak Asanbladaren bazkide egiteari uzkurragoak dira hainbat arrazoiengatik; “beste parte-hartze ereduak dituztelako, gureaz hain desberdina den mundu batean sozializatu direlako, internet eta sare sozialek eragin handia dute eta hortik abiatu behar gara guk haiengana hurbiltzeko. Gainera, neskatu hauek ez dute bere burua diskriminatua ikusten, berdintasunaren lilura bizi dute. Beranduago, lana bilatzen edota bere familiak sortzen hasten direnean, berdintasuna dagoela konturatzen dira bai, baina gutxiago”.



65 URTEK GORAKO EUSKAL EMAKUMEEN AUTONOMIARI BURUZKO IKERKETA

Emakundek "Euskadiko emakume helduen autonomia eta beren ekarpena boteretze-prozesuetan" azterketa aurkeztu zuen, erakundearen web-orrian pdf formatuan eskura dagoena. Azterketa horrek boteretze prozesuak nola islatzen diren euskal emakumeen eguneroko jardueretan ikertzen du. Azterketa hori Emakundek hasi zuen 2009an nerabe-taldearekin.



EMAKUNDEREN LANA, "NBE EMAKUMEAK" ERAKUNDEAN ERREFERENTE

"NBE Emakumeak" erakundeak Emakunde-ko zuzendaria, María Silvestre, eta idazkari nagusia, Arantxa Elizondo, gonbidatu zituen generoak prozedura legegilean izandako inpaktuaren ebaluazioan euskal esperientzia aurkezteko. Panaman ospatutako tailer horretan herri latinoamerikar desberdinetako ordezkariak parte hartu zuten. Herrialde horiek prozedura hau beren legerian onartzea balioesten ari dira, eta horrek Eusko Jaurlaritza eta Emakunde erreferentzia-erakunde bihurtzen ditu.



BELDUR BARIK PROGRAMAKO EDIZIO BERRIA

Beldur Barik programaren edizio berria abian jarri da!, "Hamaika jarrera. Hamaika aukera" lelotzat duena. Bere lehen jarduera ikus-entzunezko lehiaketa da, neska-mutilen arteko



harremanetan errespetuzko, askatasunezko, berdintasunezko eta bortizkeria sexistaren prebentziozko jarrera positiboak sustatzera zuzendutako lehiaketa. Beldur Barik! bortizkeria sexistako gazteekin egindako prebentzioko urteroko programa integrala da, 2009an berdintasunerako euskal udaletako "Berdinsarea" Sareak bultzatuta jaiotzen. Gaur egun, programak euskal erakunde guztien babesarekin eta lan aktiboarekin kontaktzen du: Eudel, Emakunde, Eusko Jaurlaritzaren Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritza eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak. Ekimen horretan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU-k) eta EITB-ker parte hartzen dute. www.beldurbarik.org

BERDINTASUN POLITIKAK BULTZATZEKO NAZIOARTEKO KONGRESUA

Emakundek antolatuta Nazioarteko Kongresua ospatuko da Bilboko Euskalduna Jauregian, urriaren 17tik 19ra bitartean, emakumeen eta gizonen Berdintasun Politikak bultzatzeko. Politika publikoek azken urteetan berdintasun arloan lortutako aurrerapenei buruz gogoeta egiteko foroa izango da, eta gogoeta hori erakundeen, arlo ezberdinetako administrazioen, mundu akademikoaren eta mugimendu feministaren arteko eztabaiden bidez egingo da. Topaketa horretan azken hamarkadetan garatutako esperientzia zehatz eta ezberdinen analisia egingo da, baita erabilitako estrategien balorazioa eta horiek gizartearen izandako eraginaren eta emaitzaren balantzea ere. <http://www.inscripcionweb.net/lgualdadMujeresyHombres>

VIRGINIA WOOLF BASQUESKOLA JAIO DA

Mintegi, tailer eta coaching saioen bidez, behar diren prestakuntza eta tresnak eskainiko zaizkie emakumezko udal-arduradunei, beren gaitasun politikoak gara ditzaten, eta berdintasunari buruzko zeharkako ikuspegia bultzatzea beraien udaletako agenda politikoan. Berdinsareak bultzaturiko proiektua da, zeinean elkarlanean daude Eudel, Emakunde eta Eusko Jaurlaritzako Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako zuzendaritza.

MILAKA IKASLEK NAHIKO PROGRAMAN PARTE HARTU DUTE

Azkeneko bi ikasturteetan zehar 29 ikastetxetako lehen hezkuntzako (6-7 urte) mila ikasle baino gehiagok egindako lanak aurkeztu ziren Barakaldoko BEC-ean ekainaren 6an, Emakundek bultzatutako Nahiko programaren bitartez. Nahiko, berdintasunerako, errespeturako eta bortizkeriaren kontrako hezkuntza programa da, berdintasuneko bizikidetasunerako balioetako heziketaren bitartez. Bere helburu nagusia, neska eta mutilen garapen integrala potentzialtasun osoan sustatzea da, emakumezkoen eta gizonezkoen trebetasunak aintzat hartuz.



ENPRESETAKO BERDINTASUNERAKO ERRONKAK, EHUKO UDAKO IKASTAROETAN AZTERGAI

EHUKo Udako Ikastaroen barne Emakunde antolatutako bi jarduerak, emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko enpresek duten erronkari buruzkoak izan ziren. Donostiako Miramar Jauregian ospatu ziren hitzaldi eta mahai-inguru ezberdinetan, gaur egungo eredu ekonomikoan beharrezkoak diren aldaketak aztertu ziren bidezko hazkunde ekonomiko arduratsu eta paritario horretarantz aurrera egiteko. Enpresa eta ekonomi-eraldakuntzan emakumeen eragina berraztertu zen eta berdintasunarekin bateragarri diren enpresak kudeatzeko eredu berriak aztertu ziren.



Aldizkariaren edizio digitalean, eduki gehiago: www.emakunde.euskadi.net/revista

- Enpresa pribatu edo herri erakundeek berdintasunaren alde burututako ekimenak.
- Jarduera interesgarrien agenda.
- Beste emakumeekin konektatzeko atala.
- Iritzia emateko lekua.

Edizioa: Emakunde. Koordinazio teknikoa: Kazeta 5. Diseinua: Didart. Inprimaketa: EPS. Lege Gordailua: VI 465-2010